



PRENTSA OHARRA: 2024.07.11

## **Europa, AEB eta Latinoamerikako unibertsitateetan euskara eta euskal kultura eskolak ematen dituzten 22 irakurle elkartuko dira bihar Donostiako San Telmo Museoan**

- **Etxepare Euskal Institutuaren bitartez, nazioarteko 35 unibertsitateetan euskal ikasketen esparruko eskolak ematen dira**
- **Irakurleen VII. Topaketan 2023-2024 ikasturtearen balorazioa egin eta etorkizuneko erronkak partekatuko dituzte**

Berlin, Helsinki, Habana, Chicago, Mexiko Hiria, Paris edota Liverpool bezalako hirietan pasa dute ikasturtea, eta bihar Donostiako San Telmo Museoan elkartuko dira. Etxepare Euskal Institutuaren irakurletza sarea osatzen duten irakurleak dira, hau da, Euskal Herriatik kanpoko unibertsitate batean euskara eta euskal kultura eskolak ematen dituzte. VII. Irakurle Topaketan ikusiko dute elkar, 16k bertatik bertara eta seik online, ikasturtearen balorazioa egiteko, esperientziak partekatzeko eta dituzten erronken inguruan hausnartzeko. Haien artean, datorren ikasturtean lehen aldiz euskara eta euskal kultura eskolak emango dituzten zazpi lagun.

Irakurleekin batera, Irene Larraza Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria eta Monika Madinabeitia Institutuko Euskara Sustatu eta Hedatzeko zuzendaria izango dira bertan, baita irakurle sarea kudeatzen duten Eneko Agirre eta Xabier Etxeberria teknikariak ere.

Urtero antolatzen den topaketa honek hitzaldiak eta talde dinamikak barne hartuko ditu, baita San Telmo Museora bisita gidatua ere. Topaketan ezagutaraziko diren berrikuntzen artean, 'Irakurleentzako Sarea' webgunea dago, munduan osoan zehar lanean ari diren irakurleen arteko saretzea eta lankidetzaren eraginkorra bideratzea



helburu duen tresna. Bertan, eskolak eta jarduerak antolatzeko baliabideak, edukiak eta materiala eskuragarri izango dute irakurleek, baita bakoitzak egiten dituen ekintzak partekatzeko aukera ere, besteak beste.

Horrez gain, Etxepare Euskal Institutuak nazioarteko unibertsitateetan euskara eta euskal kultura irakurletzak sustatzeko ekoitzi duen promozio bideoa aurkeztuko du. Eta Eusko Jaurlaritzak eta HABEk aurten plazaratu duten 'Ingura' tresnaren aurkezpen laburra egingo da. [Inguraonline.eus](http://Inguraonline.eus), euskara ikasteko eta irakasteko plataforma digitala da eta 2024- 2025 ikasturtean eskuragarri egongo da A1 mailarako.

VII. Irakurle Topaketarakin, hiru egunetan zehar Etxepare Euskal Institutuak irakurleen formakuntza sendotu eta komunitatea indartzeko burututako jarduera sortari amaiera emango zaio. Atzo, UPV/EHUko Udako Ikastaroen baitan egin zen 'Bikaintasuna Euskal Ikasketetan XIV' ikastaroan hartu zuten parte irakurleek, eta gaur talde dinamika eta formakuntza saio bat egin dute Tabakaleran.

### **Etxepare Euskal Institutuaren irakurletza sarea**

Irakurleak Euskal Herritik kanpoko unibertsitateen batean euskara eta euskal kultura eskolak ematen dituzten irakasleak dira. Horrez gain, esparru akademikoan euskal kulturaren ordezkari eta dinamizatzaile izateaz ere arduratzen dira, jarduera kultural eta akademikoak antolatuz eta kultur-arteeko topaguneak sustatuz.

Topaketa hauek 2018 urteaz geroztik egiten dira, Etxepare Euskal Institutuaren irakurletza sarea indartzeko asmoz. Institutuak mundu osoko unibertsitateekin lankidetzak hitzarmenak sinatzen ditu euskal ikasketak eskaini ditzaten. Irakurletza programaren bitartez, Institutuak euskara eta euskal kulturaren nazioarteko proiektzioa indartu eta beste hizkuntza eta komunitate batzuekin elkarguneak sortzeko euskal ikasketak sustatzen ditu nazioarteko testuinguruetan. Gaur egun, Euskal Herritik kanpoko 35 unibertsitatek osatzen dute Institutuak sustatzen duen sare hori, eta 28 dira sare horretan diharduten irakurleak.



**ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA**

Ehundura hau indartzeko, ezinbestekoa da irakurleek trebakuntza egokia jasotzea, eta horretarako, Institutuak hainbat ekimen antolatzen ditu. Esate baterako, EHU/UPV-ko Udako Ikastaroen baitan egiten den 'Bikaintasuna Euskal Ikasketetan' ikastaroa edo urtero urrian egiten den 'Atzerriko unibertsitateetan euskara eta euskal kultura irakasteko prestakuntza ikastaroa'.

#### **Info+**

Mikel Lasa  
Etxepare Euskal Institutua  
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1  
Donostia / San Sebastián  
T: 943 023 400 / M: 688 670 217  
[komunikazioa@etxepare.eus](mailto:komunikazioa@etxepare.eus)

[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)